

HUHEZi-ren graduondoen aurkezpena, Bilboko azoketan

2014/03/03

Egun jarrietan, Bilbon, egingo diren graduondoen bi azoka garrantzitsuetan aurkeztuko ditu MUko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak 2014-2015 ikasturtean eskainiko dituen unibertsitate master ofizialak. Hala, martxoaren 4an eta 5ean, ikasleek aukera paregabea izango dute bertatik bertara ezagutzeko MUren graduondoen eskaintza.

- Graduondoen eta hizkuntzen azoka.
- FIEP 2014 (Graduondoen nazioarteko azoka).

Azokak egingo dira martxoaren 4an eta 5ean. Lehena, Euskalduna Jauregian eta bigarrena, aldiz, Ercilla hotelean. Batean zein bestean, aukera paregabea izango dute ikasleek kezka argitzeko, graduondoen gaineko zehaztasunak jasotzeko eta sakontzeko ikasleen profilean eta lan irteeretan.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko ordezkariekin batera, MUren beste hiru fakultateak ere izango Bilboko azoketan: Enpresagintza Fakultatea, Goi Eskola Politeknikoa eta Gastronomia Zientzien Fakultatea.

2014-2015 ikasturtean, lau izango dira HUHEZIk emango dituen unibertsitate master ofizialak. Horietako hiruk zerikusia dute hezkuntzarekin eta, laugarrena, ostera, kooperatibismoarekin.

- Berrikuntza didaktiko metodologikoko proiektuen garapena eta kudeaketa hezkuntza erakundeetan master ofiziala (Berrimet).
- Hezkuntza testuinguru multikultural eta eleaniztunetan master ofiziala (Ekomu).
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxillergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen master ofiziala (BHM).
- Ekonomia soziala eta enpresa kooperatiboan master ofiziala (MCOOP).



Graduondo eta hizkuntzen azoka, Bilboko Euskalduna Jauregian.